

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

254. ALDIZKARIA - 2025eko abenduaren 23a (tarifaren aldaketa)

20. ORDENANTZA: UDALAREN GARABI ZERBITZUA EMATEKO PREZIO PUBLIKOAK

Aplikazio arauak.

- 1.-Ibilgailuak kendu edo tokiz aldatzeko Udalak kontratatutako garabi zerbitzua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dituzte prezio publikoak.
- 2.-Zerbitzuaren erabilpena Udaltzaingoaren bulegoetan eskabidea aurkeztuz eskatu beharko da, eta zerbitzua ahal den guztietan egingen da.
- 3.-Zerbitzua egiten hasten den une berean sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra.
- 4.-Prezio publikoa udal bulegoetan ordainduko da, eranskineko tarifak aplikatuz egingen den eta ordaintzeko unean jakinaraziko den likidazioari jarraikiz.

TARIFAK

2026KO TARIFAK (eurotan)

Garabi bakoitzeko, ordu edo horren zati bakoitzeko	75,00
--	-------